

**2. ERANSKINA**  
**PROIEKTUAREN LABURPEN FITXA**  
(paperez kopia bat aurkeztu eta bestea posta elektronikoz bidali)

<b>PROIEKTUAREN IZENA:</b> COVID-19aren testuinguruan, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Biyelan, haurren malnutrizioaren aurrean erantzun komunitarioa hobetzea.	<b>**/2020 Zenbakia (sartzeko ordena)</b>
---	---

**GGKE ESKATZAILEA:**

Elkartearen izena: **medicusmundi** Bizkaia

**PROIEKTUAREN HELMUGA GEOGRAFIKOA:**

Herria/Erkidegoa: Biyelako Osasun Eremua, Kongoko Errepublika Demokratikoa.

**JARDUERA-EREMUA:**

Haurren malnutrizioaren aurkako borroka + COVID-19 transmisioaren prebentzioa.

**HELBURUAK:**

Orokorra: Biyelako Osasun Eremuan osasun-estaldura eta osasun egoera hobetzen laguntzea. Espezifikoak: COVID-19aren testuinguruan Biyelako Osasun Eremuan haurren malnutrizioaren aurrean erantzun komunitarioa hobetzea.

**BURUTU BEHARREKO EKINTZAK:**

Lanaren eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko haurren malnutrizio eta ondoriozko konplikazioak prebenitzeko eta arreta jartzeko, langileen gaitasunak, ezagutzak eta praktikak indartzeko ekintzak egingo dira.

Osasun egituretan, COVID-19aren transmisioa prebenitzeko dauden protokolo espezifikoak aplikatuko dira.

Haurren malnutrizioa eta horren ondoriozko konplikazioak eta COVID-19aren transmisioa prebenitzeko, arretara zuzendutako osasun-egituren azpiegiturak eta hornigaien erabilgarritasunak hobetuko dira.

Haurren malnutrizioaren aurkako borrokan, biztanleen parte hartzea sustatuko da eta baita, COVID-19aren transmisioa prebenitzea indartu.

**IRAUPENA:** 12 hilabete

**PROIEKTUAREN SUSTATZAILEA:** Biyelako Osasun Eremua (Bureau Centarl de la Zone de Santé de Biyela/BCZS-Biyela).

**KOMUNITATEAREN INPLIKAZIOA:** bi mailatan gauzatzen da:

1. Proiektua komunitateak diseinatu du eta BCZS-Biyelaren bidez ezarriko da; horrez gain, Osasun Nazionalaren egituren eta garapen politika eta planetan sartuko da.
2. Proiektuko ekintza guztiek komunitateko kide guztien parte hartzea izan beharko dute, zehazki, osasun lagileena, komunitateko-mobilizazio taldeena eta Gazteen Osasuneko tokiko batzordeenak.

**PROIEKTUAREKIN ONURA ATERATZEN DUTEN GIZARTE SEKTOREAK:**

5 urtetik beherako haurrak. Haurdun dauden emakumeak eta bular emaleak. Osasun langileak. Komunitate guztia orokorrean.

**PROIEKTUAREN KOSTEA GUZTIRA:** 63.222,70€

**PERTSONA ONURADUNAK:** Biyelako Osasun Eremuko biztanleak: 260.341 biztanle (%58 emakumezkoak).

**ESKATUTAKO ZENBATEKOA:** 49.998,90€ (proiektuaren kostu osoaren %79,08).

**ZEHARKAKO KOSTUEN ZENBATEKOA:** 2.502,09€ (eskatutako zenbateko osoaren %5a)